

EH TXOI!

Gogoratzen haiz ze ondo pasatzen gintuen Kristo martxa zegoen sasoi ilun hoietan gaur dirudi demokraziak utzi haula pott egia ipurdi hartzeari gustua hartua dioala.

Inorako bidean doazen anka motel hoiak nork esango zian hireak direla leku guztitatik korrika ibiltzen hintzen, egunero ta orain ikusten haut zintzilik eta guztiz, aiko mailko

Eh txoi! gehiegi itxoiten duk hire begirada heabetiak agertzen dik zer egin jakingabetasunak indargabe haula benetan zeharo akabatuta hagola, ematen dik ta ezin duk konformagaitz bat izan hintzela, gogoratu

Eh txoi! gehiegi itxoiten duk atera hadi kalera ta berreskura hire martxa itxoiten ezin duk ezer lortu

Eh txoi! gehiegi itxoiten duk.

PAKEAN UTZI ARTE

Non bizi zen? Nondik zebilen?

Noiz egin zituen etsaiak?

Noiz zorientzua izan zen?

Zer pentsatuko luke gutaz?

zerk ematen zion indarra?

Ez gehiago bueltarik eman

egun batzuk horrela dira

dakigu gaitzen ditugunean

ahal dakigu gure heroan izenak

joan gaitzke haien hiletara.

Periodiko guztietan, lehen orrian

hilotzaren ondarrak karaxika

estatuari gerra, gerra beli

pakean utzi arte.

Maitasuna ederrera ba da

zergatik hortaz iluntzian

askatasunarekin larrutan?

Maitale arrikutsuegia da

hortik ibiltzeko kontutan.

Ez zeok bueltarik eman behar

jaso behar dena jaso da ta

ez da inor onik denentzat

nork ez du maite askatasuna

nahiz ta leher dedin esku artean?

ezin zaitut begira gehiegi da

hilotza karaxika etengabian

estatuari gerra, gerra beti

pakean utzi arte.

TA ZER EZ DA BERDIN

Ez dut ezer, ez dut ezer inoiz

ez dut ezer, inoiz zuri esateko

ohiturako egunkari eta irratiek ere

ez lukete hobe eginen

Euskadin rokanrolak ez du inoiz

dirunik emanen

inon baina alajioa izanen da.

Ezin zaitut, ezin zaitut inoiz

ezin zaitut, inoiz zu bisitatu.

Munduan ez da kokolorik

ez zeruan ere

ni bezain gaizki eginen lukenik.

Ta zer ez da berdin

noiz joango gara Jamaikara?

DROGAK AEKn

Eulixa najak eta orain ez poliziagatik

AEKko baskoek asperu nabe batuakin

ta patxanarekin

egunero klasera joan

ta kolegak kalean

eta arrotza sentitzen naiz

kanulooa zeini pasa.

zeini konta kaleko azken mobida

zetako, ez dabe entenditzen

ez dira beinbez kalia bizi izan

ta ondio ez dabez betiko eskemak

apurtu: Jaungoikoa, lege zaharra

ta HBri botua eman

eta orain nerbixu danak

apurtuta jauskat

bertsoak eta trikixirak

ikasi biot ala?

Hainbeste alegindu behar naiz

euskalduna izateko

eulixa najak eta drogak'

nahi ditut AEKn

itsua egoteko,

baskoak ez ikusteko

EGUNERO

Every day things are getting worse

Times so hard, la la la. Oh. Oh

Egunero dena okerrago

Sasoi latzak, la la la. Oh. Oh Lord

Merkatura eraman zintudan

eta denak parre ene txakurrari

ez dago kerik surik gabe, badakizu

altxa behar da burua.

HIL EZAZU AITA

Etzanda nengoela nere gelan,

besteak diskutitzen sukaldean,

peta bat egin nuen lo egitako

ta nere ondamenaz ahaztutzeko

zeozerk esan zidan: adi ametsari

eta kontuz ibili aitarekin!

Aita hilzaila izan zen,

aitak ezin zuen gainditu

aitak egin behar izan zuen, zintzilik zegoen,

egin behar zuen.

Kopetaraino zegoen emazte seme alabez eta

lanez

Kotxe berri baterako diru beharrez.

Gehiegi edan zuen batetan,

armarioetik atera zuen eskopeta

tiro bat bota emazteari, tiro bat bota anairi

beste bi tiro arebentzat eta beste bat

katuarentzat.

Eta pareko tabernan erre

eta edaten guztiak itsu ari nintzen jartzen

Tabernatik atera da eta bi argi doaz nere etxera,

bata urdina, polizia da ta,

bestea gorria, ambulantzia.

Ulertzen dut iristerakoan

bolbora usaina, odola parketan

argi urdinak aita daroa eta gorriak bost hilotzak

Bapatean despertadoreak jotzen du

ta ohartzen naiz dena amets bat izan dela

solilik amets bat, ez da ezer gertatu

zergatik orduan ezin dut lasaitu?

Sukaldean jarraitzen dira oihuak

bata moskoria besteak galduek

eta orduan bost tiro entzuten dira

eta gero solilik ixiltasuna.

Pasilooan urrats batzuk irristatzen

aitak bere lana amaitu nahiez ote?

bala bat baino gehio ba du oraindik

zer egin behar dut nik, ospa egitea hemendik

bolbora usaina, odola parketan

hil ezazu aita, hil ezazu bertan

ez ba duzu hiltzen, hila zaude

ez ba duzu hiltzen, hila zaude

ez ba duzu hiltzen, hiko zaitu berak.

EZ DAGO ILUSIO FALTSURIK

Emaidazu eskua eta hau gertatu zeneko

lekura eramango zaitut

baina zuk nahia go dena ederdi ikustea

begiak itxita

zin egidazu ez dela berriz gertatuko

baina solilik ezpainak

mugitzen dituzu ezta?

Utzidazu esaten lekukoek ez dutela

beti berdin ikusten.

Orain ez dago ilusio falsurik

zure itxaropenak zoroen solaspaua

Zerraldoa bahitua izan da kalean

denon aurrean eta zu mutu zaude orain

Zeinek ulertuko du

nagitsuak ixilik jarraituko dira

Zeinek pagatuko du inozenzi

galduaren prezia

Atraku bat izan da eta ez da inoiz

ezer errekuperatuko

eta nor daki mendekua bilatzea

egokia den ala ez.

Ez dago ilusio falsurik.

NO TIME FOR LOVE

Hoiene legea guretzat apartheid

gartzela, ihesa, hauspena ta isiltzea

hoiene legea,

zu ta ni euren gisara eukitzea

gordoa dituzu arma ta izpien

kontrako altzeiru atzean

eta gu negar gasen mende gaudenok

oker omen gaude

Tortura sufritzen, zeldatan usteltzen,

gutunak idazten eta bertan hil

eutsi zioten minari baina

bakardadeak irentzi

gorreek justizia egin zieten

matoi txukunen gisan

maiz borrokatuak irauin gogoz

baina maizago hiltzea nahi

Ez dute uzten maitatzen gauean

ez agurrik ez negarrik gauean

ez zergatik ez norarik gabe

sirenotsa garraixi bakarra gauean.

Eraman zuten Francis Hughes gaztea

baita haren lehengusu Tom

etorri ziren Patsy Ohara,

Bobby Sands ta lagunena bila

Bostonen, Chicagon, Saigonen;

Santiagon, Varsovian,

Gasteizen eta Belfasten

eta beste hainbat lekutan

hau zerrenda amaigabea

Zalozte anaiei borrokan

lagundu nahi duten guztiak

gerrara ohitu zintezke

baina gerra egon badago

arrainak itsasoa behar du ta

herriak zu behar zaitu

gure gogoak irauin artian

ez da beldurra nagusituko

Ez dute uzten maitatzen gauean

ez agurrik ez negarrik gauean

ez zergatik ez norarik gabe

sirenotsa garraixi bakarra gauean

sirena garraixi bakarra gauean.

ESAIOK

Zenbat garagar errekek pasa behar

oraindik erabaki arte

ehiztari erabetiak hire tiroen

beldurrez nora ezean.

Garaia duk motel, esaiok

ez pentsa gehio, esaiok

amodioaren aurrean egia lotsagabe

esaten ikasi behar duk

Ta ni gau guztia nabil, zuen atzetik

lagundu nahirik, zuen atzetik

mozkorto egin nauzue eta berdin zait

non lo egin edo norekin

neska horrek seguraski nahi dik

hire ondoan gau hontan egoteak

neska horrek seguraski nahi dik

bidurrik gabe hik hori esatea

neska horrek seguraski ere desio

berdinak bete nahian zebilik

ia ba, esaiok.

TUPEAK GORA

Ordu batzuk daramatzagu haien musika entzuten

Jose Mari eta lagunok ez gaituk dantzan

paratzen

rokabilly sesioa ez gaituk dantzan paratzen

tuperen bat gora ta beste batzuk goratzen

hauxe da rokanrol jaia

hoixe eroa jaia

rokanrola dantza jaia

hoixe eroa.

Zubia gurutzatzen erdiraino iristeko

zoroen gisara korrika Nancy txalo artean

taberna ankaz gora, atek itxita

dantzan egin behar genuela erabakita

hauxe da ronkanrol dantza

hoixe eroa jaia

hau bai da ronkanrol dantza

hoixe eroa.

Hauxe da ronkanrola dantza gau guztian.

AITORMENA

Ez dira betiko garai onenak,

azken linean gizaki hutsak gara,

barearen ostean dator ekaitza,

udaberri berriak ez guretzat.

Denborak aurrera etengabian

ta orain ezin eutsi izan ginara,

rutinaren morroiak bihurtu gara,

maitia lehen baino lehen aska gaitzan.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta,

ohartu gabe heldu gara mugara,

mundua jausi zaigu gainera,

maitia lehen baino lehen aska gaitzan,

ez dakigu non dagoen hoberena,

bila dezagun beste lekuetan.

Bai, zin dagizut ez dizudala inoiz gezurrik esan eta

zaude zihur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz,

aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena,

baina orain maitia lehen baino lehen aska

gaitzan.

564

Hotz amaigabe bat baino lastago

ta urteak egun baino gehio

564 ohe huts

samina zabaltzen.

Batzuen ustez ordaintzen

dagokien zigorra,

maite dutenentzat berriz

askatasun haizea.

Baina hori nork ulertarazi

etxean zai bakarrik denari,

564 taupada

gehiago gure bihotzian.